

# ZIENTZIA ETA HERRIA. EUSKAL EKONOMILARI BATEN IKUSPUNTUA

Xabier Barrutia

**Mehr Licht!** (Argitasun handiagoa!): Alemanezko esaldia. Goetheren azken hitzak, argi handiago izateko leiho bat zabaltzeko esanak. Gaur argitasun handiagoa, kultura eta zientzia gehiago eskatzeko erabiliak dira.

Kintana-ren hiztegitik

Brecht-ek Galileoren ahotan hitz hauek jarri zituen bere *The Life of Galileo* lanean:

The movements of the stars have become clearer; but to the mass of the people the movements of their masters are still incalculable... What are you working for! I maintain that the only purpose of science is to ease the hardship of human existence. If scientists, intimidated by self-seeking people in power, are content to amass knowledge, then science can become crippled, and your new machines will represent nothing but new means of oppression. With time you may discover all that is to be discovered, and your progression will only be a progression away from mankind. The gulf between you and them can one day become so great that your cry of jubilation over some new achievement may be answered by a universal cry of horror.

Ekonomiak pertsonaren zerbitzuan egon behar du eta ez alderantziz. Gaur egunean hau ez da inola ere gertatzen. Ekonomilariok guzti honen aurrean erantzunkizuna daukagu gizartearekiko.

Hona hemen lanaren haria:

1. Ekonomiak pertsonaren zerbitzuan egon behar du. Honetarako ekonomilariok herriaren zerbitzuan egon behar dugu.

2. Honek suposatzen du ekonomilariok herriari informatu behar diogula. Herriak honela erabaki ahal izango du. Ekonomilariak eta herriak betetzen duten funtzioen banaketa hau Positibo/Normatibo bereizketa bezala ere ezagutzen da.

3. Positibo/Normatibo bereizketa hau zaindu ahal izateko herriak informazio ona jaso behar du. Informazioa kutsatuta baldin badago dena hondatzen da eta ez da herria erabakitzen duena. Arrisku hau bi bidetik etor daiteke<sup>1</sup>:

3.1. Lehenengoa zientifikoki ikertua izan behar duen gaiaren aukeratzeko orduan ematen dena da. Adibidez: Herriari informazio ona eman ahal zaio Europako eskualde batetik soilik eraman daitekeen politikaren gainean. Baina izkutatu ahal zaio (gai hau ikertua izango ez balitz) Europa mailan aplikatu daitezkeen planifikazio desberdinen aukera.

Beraz, zientifikoki ikertua izateko garrantzitsua zer den baloratu behar denez zientziak ezin du neutrala izan. Nork erabakitzen du zer ikertu behar

den? Nork zer ikasi behar den unibertsitatean? Herriaren interesak ala kapitalaren interesak? Zientifikoki ikertzeko zer gai den garrantzitsua interes batzuen arabera erabaki behar denez, esaten dute zientziak ezin duela neutrala izan. Eta egia da. Eta gainera ez dugu neutraltasunik nahi, herriaren alde gaude.

Arrisku hau gaindituta egongo balitz ere 3.2. puntu gatazkatsua sortuko litzaziguke; eta zentzu horretan ulertuko dugu zientziaren neutraltasuna edo objektibitate eza.

3.2. Zientzi ikerketaren orduan: Zer ikertu erabaki eta gero ikerketa bera dator. Eta kasu honetan, lehen ez bezala neutraltasuna nahi dugu. Hori bait da herriaren interesekin bat datorrena<sup>2</sup>. Arriskua kasu honetan neutraltasun eza da, hau da, zientzi lanean ekonomilarien subjektibotasunak edo aurriritzi ideologikoen sarrerak arriskutan jar baitezake Positibo/Normatibo bereizketa. Ideologia bakar bateko ekonomilariak informazioa ematen badiote herriari, orduan, informazio “zientifikoa” eta Hare Krishnen panfletoen artean ez da desberdintasun handirik egongo.

4. Aipatu arriskuari aurre egiteko daukagun bidea zientzi munduan irekitasuna ematea da. Ideologia, nazio... desberdinetako zientzilariak ateak zabalik eduki behar dituzte, elkarren artean kontrolatzeko eta gauza guzti hauek salatzeke.

5. Eta salatzea da egingo duguna, gaur eguneko egoeraren gaineko gure iritzia ematen dugunean.

---

## Zer da ekonomia?

---

Ekonomia baldin bada ZER-NOLA-NORENTZAT galderen erantzuna aztertzen duen zientzia, hau da: Zer produzitu?, Zer teknologiarekin?, Nortzuk ariko dira lanean?, Norentzako produzitu?. Orduan ekonomia ikasten jarraitzeko interesik ez dugu falta. Oraindik hirugarren munduko pertsona askorentzat ez baita produzitzen, langabezia daukagu gure artean, e.a. luze bat.

Ikasteko interes horrekin hasten gara, baina ikasketak hastearekin batera harrিতa geratzen gara. Klaseak hotzak gertatzen dira. Zenbaki hotzak. Kurbak, tangenteak eta deribatuen artean aurkitzen gara. Eta gure ikasketak horrelakoa zergatik izan behar zuen inork ere ez zigun azaldu. Zentzurik gabeziaren aurrean errebelatu egin ginenez zergatik hori bilatzeari ekin genion. Geroago konturatu ginenez liburu batzuek azalpenen bat ematen zuten. Guztira bi arrazoi aurkitu ditugu gure klaseak hotzak izateko:

1) Lehenengoa demokrazi irizpidea errespetatu beharra da. Hau da, herria da erabakiak hartu behar dituen. Herria da bere buruaren jabe izan behar duena. Guk ekonomilariok, ez daukagu inolako eskubiderik erabakiak hartzeko herriaren kompetentziak inbadituz. Ez eta langabezia borrokatu behar dela erabakitzeke edo etikoki ona kontsideratzen dugun beste helbururen bat determinatzeko ere. Herritar bezala helburu horiek

onartuak izateko ahalegin guztiak egin behar ditugu, baina zientzilariak izateagatik ez daukagu erabakitzeke eskubiderik. Beraz, gure klaseetan erabakitze-prozesuak ekartzen duen eztabaidaren berotasunak ez du egon behar.

Demokrazi irizpideak funtzioak banandu behar ditugula esaten digu. Herriak erabaki behar du eta zientzilariak herriari informatu behar diote honek erabakitzeke gaitasuna eduki dezan. Banaketa hau Positibo/Normatibo bereizketa bezala ere ezagutzen da. Gure zientziaren baitan badaukagu bereiztea Ekonomia positibo eta Ekonomia normatiboaren artean. Ekonomia positiboa ekonomi errealtatea den moduan azaltzen diguna izango litzateke. Ekonomi errealtatea zuzentzen duten legeen azalpena ere ematen digu. Honela, errealtatean emandako aldaketa batek zer eragin edukiko lukeen auresatea ahalbidetzen digu. Hemendik dator zientziaren aplikagarritasun praktikoa guztia. Ekonomia positiboaren zeregina ekonomilariari dagokio.

Ekonomia normatiboa hauxe izango litzateke, ez ekonomia den bezala edo izango litzatekeen bezala baizik eta izan behar lukeen bezala. Gure borondatearen arabera ekonomiak nolakoa izan behar lukeen, zer helburu jarraitu beharko genukeen (langabezia borrokatzea, gure aberastasun pertsonala igotzea, e.a.) erabakitzea. Ekonomia normatiboaren ardurak, zientzi mundutik at egongo litzatekeenak, herriaren zeregina izan behar luke.

Ekonomia ortodoxoaren munduan, T.W. Hutchison-ek dioskunez, proposamen positibo eta normatiboen arteko bereizketa garbia egin ahal eta egin behar dela izan da onartutako irizpidea. Nassau Senior eta J.S. Mill-enganatik hasi Robbins eta Friedman ganaino, Cairnes, J.N. Keynes, Pareto eta Max Weber-enganatik pasatuz<sup>3</sup>.

Ortodoxoek defendatutako edozer gauza susmagarria da gutariko askorentzat. Horrela, kritikak egon dira banaketa honen bandera altxa-tzearen atzetik egon zitekeenari buruz. Galbraith-ek, esate baterako, ardura moraletatik independentea omen den ekonomia positiboa aldarrikatzearen atzetik, injustizien aurrean edozein erantzunkizun txuliatzeko nahia egon dela salatzen du. Bizitza profesional lasai bat defendatzeko balio izan duela eta egun ere balio duela<sup>4</sup>. Eta ni konforme nago iritzi horrekin. Andoni Ibarren ustez, Max Weber-en zientzia neutral edo *wertfreie* delakoaren defentsaren xedea “XX. mendearen hasieran sozialki gatazkatsu eta kinka larrian aurkitzen zen Alemaniaren garai aurreiraultzaileari aurre egiteko Alemaniako Unibertsitatearen despolitizatzearen helburua zela nagusi”<sup>5</sup>.

Nire ustez printzipioa egokia da. Bere izenean demokraziaz aparte beste zerbait kondenagarria bilatu izanak ez du ezer kentzen. Stalin-ek ere elkartasuna aldarrikatzean beste zerbait zeukan buruan, bere aginduen obediencia. Hor gertatzen da bera gezurti zela, baina elkartasunak gauza ona izaten segitzen du. Guk ekonomiari leporatzen dioguna, geroago argudiatuko dugun bezala,

aldarrikatutako printzipio hau ez betetzea da, ez desegokia izatea.

2) Gure klaseak hotzak izateko bigarren arrazoi bat dago. Gauzak pasioz begiraturaz gero beharbada begiak lainotuko zaizkigu eta ez ditugu gauzak behar bezala ikusiko. Hau honela bada, gure lanaren kalitatea txarra izango da.

Hemen sortzen da zalantza edo galdera. Positibo/Normatibo bereizketa aurrera eramane daiteke?<sup>6</sup> Posible al da ekonomilariak arrakasta edukitzea bere objektiboan edo neutrala izateko ahaleginetan?. Zientzia ez bait da, senetzko ideia zabal baten aurka, zerbait zehatza eta hertsia<sup>7</sup>. Ideologiaz, nazionalitate desberdineko zientzi-lariak ondorio desberdinetara iristen dira. Honek, jakina, ikusi ditugun arrazoi bien arabera ikusi dugunez, arriskua dakar gure lanaren kalitatearentzako eta demokrazi-irizpidearentzako. Arriskua ekonomilaria ekonomia positibora ez mugatzea da. Bere lana bere ideologiak baldintzatuta baldin badago, herriari aurkeztuko dion informazioa manipulaturik egongo da. Nahita edo nahi gabe gerta daiteke hau. Herriak, ekonomia normatiboko erabakiak hartu baino lehenago informazio hau jaso behar du. Zer egin behar den erabaki orduko zer egin daitekeen jakin behar du. Baina baldin jasotzen duen informazioa kutsatuta badago, aukeraketak benetan egiten ari dena baldintzatzailea da eta ez herria.

Hau da, gominolaz ilea apainduta daukan yupie batek informazioa ematen badio herriari: “alokairuak

murriztu behar dira bestela kostuen aldeko inflazioa sortuko da...". Herriak ekonomiaz ezer gutxi dakienez sinetsi egin diezaiokie eta aberatsek segituko dute agintzen.

Arrisku honen aurrean bide bakarra dago. Popper-ek "Objektibitate zientifikoa"<sup>8</sup> deitzen duena. Hau da, zientzi munduan irekitasuna behar da. Ideologia desberdinetako zientzilariek ateak irekita eduki behar dituzte. Batzuek besteen lanak ezagutu eta kritikatu egin ahal izateko. Horrela, intersubjektibitatearen bitartez lor daitekeen objektibotasunaren hurbilpenari "objektibitate zientifikoa" deritzogu. Hori da indar guztiakin egin dezakegun gauza bakarra, erabateko objektibotasuna ezinezkoa baita. Bide honetatik, Hutchison-en iritzi, gutxieneko adostasun zientifikoa lor daiteke; bakoitzak, nahiz eta aurriritziek kutsatuta egon, ezin baitu justu-justu nahi duena ikusi. Batzuek besteei egindako kritiken bitartez aurrerapausuak eman daitezke eta neurritz gaineko eszeptizismoa gainditu. Hori da bere iritzia. Objektibitate zientifikoa zaintzen den ala ez begiratzek arreta berezia merezi du. Baina guk jarraian puntu hau aztertu barik zientziaren frutuei begiratuko diegu.

---

### **Gaur eguneko egoeraren gaineko iritzia**

---

Aurreko zalantzak eta arriskuak ikusi ondoren, zein iritzi dugu gaur eguneko egoeraren gainean? Demokrazi irizpidea zaintzen al da? Herriari ematen zaion informazioa ona al da? Positibo/Normatibo bereizketa errespetatzen al da?

Nire ustez erantzuna argi dago. Ez. Azter dezagun herriari aurkezten zaion informazioa, honelakoa da: "Europako tren hartu behar dugu", "teknologia berrien tren hartu behar dugu, bestela geureak egin du", "konkurrentzialtasunaren tren",... . Badirudi herria martxan dabilen tren bat hartzen saiatzen den polizoia dela. Korrika baten western-eko filmetan bezala. Herriak tren horretako makinista izan behar lukeenean eta tren zuzendu berak nahi duen norabidean. Ekonomia bere beharizanean egokituz eta ez bera ekonomia beharizanean egokituz.

Badago intelektuarki nekagarria den zeozer. Eta honetan bai atzerakoi eta bai aurrerakoi asko ere erortzen dira. Ahazten bait da ekonomia giza zientzia dela. Ekonomian pertsonak sartzen dira eta hauek duten askatasuna. Koopmans, ekonomi zientzia airean dagoela esan zuen Nobel sariak dioskunez, ekonomian bereizketa bat egin beharra dago bi motako enuntziatu edo teorien artean. Alde batetik produkzio-aukeren gainekoak egongo lirake, non giza askatasunak ez daukan sarrerarik. Beste alde batetik ekonomi jokaeraren gainekoak, non giza askatasuna sartzen den. Azken hauen gainean dihardugunean ez da ahaztu behar (ahazten den bezala) joerez ari garela eta ez legez. Joera apurtu egin daiteke giza jokaera aldatuz gero<sup>9</sup>.

Adibidez, ekonomi aldaketaz eta aldaketa espazialaz hitz egiten denean, dauden joerak azaltzen dira. Enpresek leku batean edo bestean kokatzea erabakitze orduan irizpide hau edo bestea segitzen dute, sektore

bakoitzaren ezaugarri teknologikoak emanda, zuzendarien gustuak kontutan hartuz,... Azterketa hori egin ondoren, ondorioa hauxe da eskualde bakoitzak enpresak erakarri egin beharko lituzke ekonomi iharduera bultzatu nahi badu. (Guzti hau noski oso komenigarria da kapitalaren interesentzako). Baina ahaztu egiten da joerez ari garela eta ez legeez. Joerak aldagarriak dira gure borondatearen bitartez. Adibidez, nazioarteko mailan ekonomia planifika liteke, teknologia egokia aukeratuz, Schumacher-ek irakatsitako zentzuan; Europa mailan ogasun publiko bat ezar daiteke benetako politika erregional bat aurrera eramateko; Galbraith-ek proposatu duen moduan, multinazionalen boterea kontrolatu egin liteke; e.a.

Baina noiz erabaki da gauza hauek egitea ala ez egitea? Gai hauek ez zaizkio herriari aurkeztu, beti aukera bakarra ematen zaio herriari. Zelako erantzunkizuna herriari gauza hauek ez aurkeztea! Zergatik ez da egin? Ezinezkoa da horrelako neurriak aurrera eramatea? Arazo teknikoak daude? Hala arazoak politikoak al dira? Multinazionalen botereak ekiditen al du politika hori?,... Puntu guzti hauek argitu egin behar lirateke. Esplizitatu egin behar da. Ezinbesteko demokrazi eskakizuna da.

Eta esplizitatzea ezinbestekoa da, baina hain gutxi egiten da. Beti daude arrazoi “garrantzitsuak” eta “inteligenteak” ez egiteko. Gehiegi esplizitatzten denean “alferrik galtzen da” esan du hemengo politikoari ospetsu batek. Negoziaketak daudenean gauza serioen gainean, zerbait lor daitekeenean,

garaiz baino lehenago esplizitatzeak arriskuan jar dezake azken emaitza.

Beti daude herritarrak jakinaren gainean ez egoteko arrazoi garrantzitsuak.

Eta zein da ekonomilarien jokaera aurreko guztia ikusita? Ekonomilariak (hauen artean unibertsitateko irakasleak) oso gutxi hartzen dute parte gizarte-eztabaidetan. Positibo/Normatibo bereizketa zaindu beharrak demokrazi irizpidearen izenean ez du inola ere esan nahi ekonomilariok erantzunkizunetik libre geratzen garenik. “Ekonomilariak ekonomilari bezala jokatzten duenean” eta antzeko baieztapenak egiten direnean (hori da teoria nagusia) erantzunkizuna txuliatu egin nahi da. Zientzi ikerketan neutralak izan behar dugu, baina ez dugu ixilik geratu behar herriari informazio manipulatu ematen zaiola ikusten badugu. Gaur eguneko ixiltasunak beste arrisku bat dakar. Hau da, jendeak sinistea mundu hau razionala dela.

---

### **Gizartearen teoria konspiratzailea teoria razionalaren aurka**

---

Badago gizartean hedapen handia daukan teoria bat, gizartearen teoria konspiratzailea. Teoria honen arabera gizarteak dauzkan arazo latzenak (gosea adibidez) ez badira konpontzen, konponketaren aurkako interesak daudelako da. Interes horiek konspiratzen dute gauzak dauden bezala mantentzeko. Ni iritzi honekin bat nator.

Teoria konspiratzaile honen kontrakoek, (hauen artean Popper dagoelarik)<sup>10</sup>, konspirazioek arrakasta nekez aurkitzen dutela argudiatzen dute. Aldagai asko baitaude ezin kontrolatu daitezkeenak, espero gabeko eragin asko. Hau neurri handi batean egia da. Boterean dagoen kapitalistak ez du gizarte guztia diseinatu. Klase horren konspirazio baten ondorioa bakarrik ez zen izan feudalismotik kapitalismorako jauzia. Aldagai objektibo asko daude, nekez kontrola daitezkeenak. Esate baterako produkzio-bideen aurrerapena. Hau Marx-ek berak ere aitortu zuen “Kapitala”-ren hitzaurrean. Berak ez zien eman indibiduoari historiaren erantzunkizuna: “Nik bezala gizartearen ekonomi osaketa prozesu historiko-naturaltzat daukanak, ezin du indibidua baldintza batzuen erantzule egin, bera horien produktua denean”. Ondorengo marxista gehienak berriz ez dira ildo horretatik abiatu.

Nire ustez erdibideko akordio bat lortu behar genuke teoria konspiratzailearen eta Popper-en jarreraren artean. Oso emankorra izango litzateke. Alde batetik, Popper-ek teoria konspiratzaileari askoz garrantzi handiagoa eman behar lioke. Marx-en teoria kritikatzin baldin badu pertsonaren askatasuna eta erantzunkizuna aldarrikatuz, agintariei kontua aplikatu beharko lieke. Nahiz eta gizarte guztia ezin diseinatu, onartu behar da boterean daudenean daukaten autonomi tarte garrantzitsua. Oztopo ikaragarri bilaka daitezke gizartearen hobekuntzarako. Tamalez, konspirazio arrakastatsuek ere badaudela aipatu nahiko genuke. Ondo dakigu hau

euskaldunok. 1992. urtea ospatzen duten honetan gogoratu nahi dugu Antonio de Nebrija eta Isabel erreginaren arteko konspirazioa hizkuntz politika kontziente bat aurrera eramateko. Edo gaur egunean estatu espainoleko eta frantseseko konspirazioa Euskadi zapaltzeko. Kezkagarria da agintariek denborarekin gero eta bitarteko indartsuagoak eskuetan edukitzea.

Teoria konspiratzailearen aldekoak ere erdibidera pasatu beharko lukete Popper-en kritika jasoaz. Hau da, konspiratzaile madarikatuak boteretik bota ondoren ez dira arazo guztiak amaitzen. Gero gizarte hobeko baten eraikuntza geratzen da. Eta hau ez da erraza, arazoak daude. Adibide bezala, Erich Fromm-ek funtsezko arazotzat seinalatzen du bateragarriak egitea ekonomia planifikatua (ekonomiaren kontrol razionala izango litzatekeena, pertsonaren zerbitzuan jarri ahal izateko) eta beharrezkoa den deszentralizazioa (demokrazia eta benetako askatasuna eta eskuartzea gertatu ahal izateko, dena ez baita beharrezko fisikoak asetuta edukitzea)<sup>11</sup>. Saiaketa eta errakuntzaren bidetik abiatu behar dugu. Horretarako saiaketan kritika beharrezkoa da, hau onartu beharra dago eta legeen bitartez babestu. Hau ahaztu egin zuten marxistek langilegoaren diktadura proposatzean. Arazoak ez ziren uste bezain errazak izan. Eta askatasunarentzat suposatzen zuen irakasgai bezala balio behar digu. Hauteskundeak ere, parte hartzeko beste bide batzuekin batera beharrezkoak ditugu. Nire ustez, dauzkagun arazo asko, gure artean ere



dagoen irekitasun eta malgutasun gabezia honengatik gertatzen dira.

Gizartearen teoria konspiratzailea kritikatu dugu. Konspiratzaileak boteretik botatzearekin bakarrik gure arazo guztiak amaitzen ez direnez, Popper-ekin bat uste dugu giza zientzien zeregina konspirazioen ikasketan ezin dela amaitu. Gure helburuak hurbiltzeko egindako saiaketek aurkitutako beste oztopoak ere aztertu behar dira.

The view that it is the task of the theoretical sciences to discover the unintended consequences of our actions brings these sciences very close to the experimental natural sciences. The analogy cannot here be developed in detail, but it may be remarked that both lead us to the formulation of practical technological rules stating *what we cannot do*.

The second law of thermodynamics can be expressed as the technological warning, “You cannot build a machine which is 100 per cent efficient”. A similar rule of the social sciences would be, “You cannot, without increasing productivity, raise the real income of the working population” and “You cannot equalize real incomes and at the same time raise productivity”. An example of a promising hypothesis in this field which is by no means generally accepted-or, in other words, a problem that is still open-is the following: You cannot have a full employment policy without inflation.” These examples may show the way in which the social sciences are practically important. They do not

allow us to make historical prophecies, but they may give us an idea of what can, and what cannot, be done in the political field<sup>12</sup>.

Azken aipu hau oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Beraz, ekonomi zientziako hipotesi edo teoriak esango ligukete zer ezin daitekeen egin, noraino hel gintezkeen mundua aldatzeko nahian. Muga seinalatuko lukete. Lehen aipatu dudak ekonomilarien ixiltasunak eta “seriotasun” prosaikoak gizartearen aurrean hauxe ekartzen du: mundua razionala dela pentsarazten du. Zientziaren aplikazio bat dagoela gizartean. Gure gaur eguneko mundua ez bada hobetzen maila handiago batean zientziatik lortutako teoriak dagoeneko muga seinalatu dutelako izango litzateke.

Eta beraz, ulertu beharko genuke hirugarren munduan gosez hiltzen direnei ezin zaiela gehiago lagundu (ekitate eta eraginkortasunaren arteko legeren bat egongo litzateke hori txuliatzen edo...), langabeziaren aurka ezin dela gehiagorik egin,... Gaur eguneko zientzilari eta politikoen ixiltasunak horretara eramaten gaitu. Razionalitate-itxura bat ematen du, estatuaren sostengurako baliagarria dena. Eta razionalitate-itxurak, berau lortzetik hain urrun gaudenean intelektualki sufriarazi egiten du.

---

### **Apendizea: Azken Kritikak**

---

Nire ustez Katouzian-ek dena nahasten laguntzen du bere “Ideología y método en economía”<sup>13</sup> liburuarekin,



behintzat Positibo/Normatibo bereizketari dagokionez. Positibo/Normatibo bereizketa errefusatu duela baieztatzen du. Baina nahaste linguistikoa da. Berak bereizketa mantentzen du, baina guk "positiboa" deitutakoari berak "preskriptibo-normatiboa" deitzen dio eta "normatiboa" deitzen diogunari berak "iritzi-enuntziatuak-epaiketa moralak" deitzen dio. Katouzian-ek egindako hitzen erabilera tradizioaren aurka doa eta nahastea sortzen du. Bestela bere liburuaren izpirituarekin bat nator.

Lehenago esan dugu ekonomilarien ixiltasuna ematen dela. Esan beharrekoa ixiltzen dutela esan nahi genuen. Bestela, hitz egin, asko hitz

egiten dute: Boterearen alde, utopiaren alde (benetan utopia zapaltzeko), demokraziaren alde (benetan demokrazia zapaltzeko), curriculum-a egiteko,...

Denak ez dira horrelakoak, jakina. Pertsona jator asko ari dira ekonomia ikasten. Lenin-ek Internazional Komunistaren laugarren kongresuan esan zuenez, "dauzkagun minutu libre guztiak" (ligatzeko astia ere atera behar dugularik), "ikastera dedikatu behar ditugu, *hasieratik hasten*". (Kursibak nireak dira, baina uste dut berarenak ere izango liratekeela). Helburua, Francis Bacon-ek esan zuenez, pertsonaren zoria hobetzea da.

---

## Oharrak

---

- 1 Guzti hau ederto azaltzen du T.W. Hutchison-ek bere *Economía positiva y objetivos de política económica* liburu bikainean. Arg: Vicens Vives. Zientzi ikerketaren norabidearen determinazioarena 54-58 orrialdeetan.
- 2 Samuelson-ek dioskunez: herriari "baliagarriagoa zaio egoera batean eta egoera horretan har daitezkeen neurri desberdinen deskribapen zehatzena egin dezakeen zientzilaria". Erich Fromm-ek egiaren aldarrikapen sutsua egiten du bere *El miedo a la libertad* liburu zoragarrian. Bertan esaten duenez, Egia edo jakintza, botererik ez daukatenen eta mundua aldatu nahi dutenen intereseekin bat datoz. Ikusi 237-9 orrialdeak.
- 3 *Economía positiva y objetivos de política económica*, T.W. Hutchison, Arg: Vicens Vives, 7. orrialdea.
- 4 *Historia de la economía*, J.K. Galbraith, Arg: Ariel, 139-140 orrialdeak.
- 5 "Baloreak zientzīgintza enpirikoan: Egiaren eragina bereziki". Andoni Ibarra. *Baloreak Gizartean* liburuan. Arg: UEU. 52. orrialdea.

- 6 Orain Humek egindako Positibo/Normatibo erabateko bereizketa zalantzan jartzen dute batzuek, arrakasta gehiegirik gabe nire ustez. Eta erabatekoa ez dela baino askoz gehiago baieztatzen dute batzuek. Arrazoirik gabe beste muturrera pasatzen dira, zentzua ukatzen diote bereizketari. Euren artean denetatik dago, batzuk, dena erlatiboa dela esaten dutenak eta ondorioetara ez dizutenak inoiz iristen uzten atzerakoia dira. Status quo-a mantentzen laguntzen dute.
- 7 Puntu horren azalpen ona ikusteko ikusi Alan F. Chalmers-en *¿Qué es esa cosa llamada ciencia?*. Arg: Siglo XXI.
- 8 *La sociedad abierta y sus enemigos* Karl Popper, Arg: Paidós Studio Básica, 385-6 orrialdeak. Eta egile beraren *La miseria del historicismo*, Arg: Alianza Editorial, 170-1. orrialdeak.
- 9 Koopmans-en aipua bere ondoko liburuan dator: *Tres ensayos sobre el estado de la ciencia económica y la conferencia del nobel*, Arg: Bosch, 163. orrialdea. Schumacher-ek ekonomiaz eta askatasunaz hausnarketa polita dauka aipatutako bere *Lo pequeño es hermoso* liburu zoragarriko 196. orrialdean. Joerak eta legeen arteko bereizketa Popper-en *La miseria del historicismo*-an dator 129-130. orrialdeetan.
- 10 *Open society and its enemies*, Karl Popper. 1990. Arg: Routledge. 94-96. or.
- 11 *El miedo a la libertad*, Erich Fromm, Arg: Paidós, 259. orrialdea eta ondorengoak.
- 12 *Conjectures and refutations*, Karl Popper. Arg: Routledge. 1989. 342-3. or.
- 13 Argitaletxea Hermann Blume da eta Positibo/Normatibo bereizketaren gainean 6. kapituluan hitz egiten du.